

Familia honen barruan zuhaitzak topatuko ditugu eta inoiz zuhaiskaren bat. Zuhaitz hauek, hosto iraunkorrak izaten dituzte eta oso estuak, orratz-formakoak hain zuzen ere, 2, 3 edo 5eko sortetan bildurik. Adaburu piramidala du eta adarrak erregulariki bertizilatua izaten dira. Familia honetan jatorrizko espezieen banaketa ondo zehaztea oso zaila da, zona askotan espezie desberdinak landatu baitira. Dena den, eta Euskal Herrira mugatuz, 4 espezie eta hibrido bat onartzen dira, jatorrizkoztat (*Pinus pinaster*, *P. sylvestris*, *P. uncinata*, *P. halepensis* eta *P. x rhaetica*) gainerako espezie eta subespezieak landatuak dira.

J. Terés



Aztergai dugun mendi-pinuak, 25 m-ko altuera har dezakeen arren, normalean bizi ohi den lurzoru eskeletiko eta baldintza defaboragarriak kontutan hartuz, ale askoz ere txikiagoak ikusi ahal izango ditugu, inoiz 15 metroko espezieen bat topatu ahal izango dugularik. Herrestari modura ere azal daiteke. Enborra zuzena, gris iluna, sakonki zarta-

tua eta teselatan partitua. Adarrak, dentso eta laburrak, kopa estu eta trinko bat eratzen dute. Hostoak, orratza-formakoak, 3-8 cm bitartekoak, binako sortetan taldekatu eta finki zerratuak, kolore berde iluna dute eta 2-5 urte bitarteko zikloa betetzen dute. Kono arrak 5 cm artekoak, horiak eta zilindrikoak izaten dira, emeak berriz handiagoak 10-12 cm bitartekoak, kolore gorri-morekoak, bakarti edo bertizilatua.

Pinaburuak berriz 3-6 cm bitartekoak, arre-more kolorekoak eta distiratsuak dira eta hazi hegaldun ugari du. Uda-berriaren amaieran edota uda hasieran loratzen da, pinaburuak berriz bi uda barru helduko dira eta haziaren banaketa 3. udan gertatuko da.

Trinkotasun gutxiko lurzorua eta lurzoru heze samarrak ditu gogoko. 1.600 m-tik 2.400 m-ra bitartean aurkitzen da bereziki, zenbait mendilerrotan 2.700 m-ra ikus badaiteke ere. Berezko lekuak Alpeak, Iberiar mendikatea eta Pirinioak ditu eta Euskal Herrian Pirinioetako Orhi mendiaren mendebaldeko maldan soilik topa daiteke.

Oso hazkunde mantsoko eta bizi luzeko zuhaitza da, 600 urte bitartekoa. Estai subalpetarra kolonizatzen du gure lurraldean. Mendi-pinua iristen den lekura, ez da beste zuhaitzik iristen, eta eginkizun ekologiko garrantzitsua betetzen du, bai higadura galaraziz, eta baita bizidun desberdinentzat lagungarri izanik ere. Espezie hau ondo garatzen denean, kalitate oneko egurra ematen du eta eraikuntzan erabili ohi da.



Gailurretan, zelatari... Mendi-pinua

Joxepo Terés*

* Naturalista.

FITXA TEKNIKOA

Mendi-pinua

Familia: pinazeoak
Espeziea: *Pinus uncinata*
Banaketa: arraroa eta lokalizatua
Habitata: 1.600 m-ko altitudetik gorako hezetasunezko zorueta, gehien bat.

Sendabelarra: —

